

ARGIAko zuzendari hori

A

ARGIaren azken zenbakian, Ur Apalategi idazleak, Bilboko hiru euskaltegi martxan jarri dugun “*Gueroren irakurraldi etenik gabea*” izeneko ekimenaz dihardu bere artikuluan. Apalategiren ustez, aipatu ekimena guztiz anakronikoa da, zeharo tokiz kanpoko; gaur egun *Gueroren* irakurketa antolatzea erregresioan jaustea da eta moder- nitatearen aurka doa. Bego eta bedi. Ni, ekimenaren antolatzaile eta bultzatzaileetako bat naizen aldetik, ez naiz haren uste berekoa, noski, eta Apalategik esan- dakoak jorratu nahi nituzke, aldizkaria- ren irakurleek beste iritzi baten berri jakitea estimatuko dutelakoan.

Apalategi adiskidea: Gustura esan- go nizuke oso oker zaudela zure plan- teamenduetan, zure kritikek ez dauka- tela inolako zentzurik, funtsik edota oinarririk, eta zure artikulua osoa dispa- rate handi bat dela, horrekin lortuko banu zure idazkiaren eragin negatiboa neutralizatzea. Baina, ezin dizut hala- korik esan, arrazoi sinple batengatik: bertan esaten dituzun gauza askorekin bat natorrelako eta ados nagoelako zurekin. Axularren ideologia eta mora- la, *Gueroren* bitartez ezagutzera ema- nak, oro har arbuiagarriak dira. Ados. Eta adostasunekin jarraituz, zure arti- kuluan bada esaldi bat, ez bakarrik ados nagoena, baizik eta hunkitu eta guzti egin naue- na: “*Hamaika pausoren irakurtaldi jarraikia zoragarria litzateke niretzat*” diozu pasarte batean. “*Niretzat ere zoragarria litzateke*” diot nik itxaropentsu. Izan ere, Saizarbitoriaren liburua nire kuttuna da aspalditik.

Guztiarekin, Axularren ideologia eta morala sala- tzeko orduan zurekin ados banago ere, ez nator bat zuk ateratzen dituzun ondorioekin, nik uste baitut kontraerreforma, “sorginen” erreketeta eta gizakiaren ikuspegi desolagarriak gorabehera –Axular idazle bikaina dela inondik ere–. Niretzat giltzarria haren

estiloa da, idazkerarekin berarekin ez ezik, beste arte batzuekin –musika eta pinturarekin, kasu– zerikusi handia daukana. Hala erantzun omen zion Duvoisin kapitainak Louis Lucien Bonaparte printzeari, honek gutun batean egiten zion honako galderari:

- Zer du Axularrek besteek ez dutena?
- Kolorea, kolorea!

Zure idazkian asko harritu nau idazle klasikoek eta gaur egungoen artean jartzen duzun oztopoaren sen- doak, egiten duzun ebakiaren zabalak, irekitzen duzun amildegiaren sakonak. Nire errealitatea bestelakoa da. Nik osotasun batean bizi dut neure euskalduntasuna. Niretzat dena da bat. Axular maite dudalako maite dut Saizarbitoria, eta Saizarbitoria maite dudalako maite dut Axular. Grabea al da, doktore?

Ia hemeretzi urte bete nituen arte, analfabetoa izan nintzen euskaraz. Aurreneko lana neure burua alfabetat- zea izan zen; hurrengoa, euskaltegian lanean hastea. Gaur arte. Bitartean, ordea, euskaltegi euskarak muga estuak zituela ohartu, eta, nire bizitza- ko momentu batean ni ere –muga haiek gainditu nahian– hizkuntza malgu, gozo, jostalari eta adierazkorra- go baten bila abiatu nintzen. Eta horrela egin nuen topo literaturarekin.

Hasieran, jakina, nire garaiko idazleen obrak irakurri nituen. Aurrerago, berriz, beste garai bateko obrak irakurtzeari ekin, eta klasikoek zeharo maitemindu ninduten. Ez dakit zein izango zen arrazoi nagusia. Agian, Arestik aipatu ohi zuen “ezagutza errefle- xua”. Kontua da beste lurralde bat aurkitu nuela –oso zabala, eta ordurarte sekula zapaldu gabekoa–, eta aurkikuntza hark sorrarazi zidan lilurak bere hat- tan dirauela nire barrenean.

Pedro Alkendi

◀ ‘*Hamaika pausoren irakurtaldi*

jarraikia zoragarria litzateke

niretzat’ diozu pasarte batean.

▶ ‘*Niretzat ere zoragarria litzateke*’

diot nik itxaropentsu. Izan ere,

Saizarbitoriaren liburua nire

kuttuna da aspalditik

UDAKO MENUA

-08

www.ueu.org

Matrikulazio epea: ekainaren 20ra arte



Udako Euskal Unibertsitatea

-ЕІВАРКО ZIZKA-МІЗКАК

ЕКЛАМАКЕН ЗОЕТИК УЗТАЛАКЕН ІІРА

-ВЛЮИЛКО GUTIZIAK

УЗТАЛАКЕН ІІТИК ІІРА

-ІРУЙЕКО AZKENBURUKOAK

УЗТАЛАКЕН ЗІЕТИК 25ЕРА